



**UDALBILTZA PARTZUERGOKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILE**  
**LANPOSTURAKO ORDEZKAPENA ETA LAN POLTSAREN**  
**OSAKETARAKO PROZEDURA DEIALDIA ETA OINARRIAK**

Udalbiltza Partzuergoko Batzorde Eragileak, 2018ko otsailaren 9ko bilkuran, udaleko idazkari-kontuhartzailea lanpostua bitarteko funtzionario bidez betetzeko deialdia zabaltzea eta dagozkion oinarriak onartzea erabaki zuen.

Onartutako hautaketa-prozedura arautzen duten Oinarriak ondorengoak dira.

**Lehenengoa. Deialdiaren xedea.**

- 1.1. Oinarri hauen xedea Udalbiltza Partzuergoan idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren ordezkapena txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez betetzea eta etorkizuneko behin behineko kontratazioak egiteko lan poltsa sortzea. Hautaketa froga egin eta gainditzen dutenekin zerrenda osatuko dugu, puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.
- 1.2. Kontratu mota: Iraupen jakinekoa izango da, bitartekoa. Hasiera batean amatasun baja ordezkatzeko izango da.

Gerora, behin-behineko ordezkapenatarako erabiliko da zerrenda: lan bajak, oporrak, behar puntualak edota lanpostua behin betiko bete ahal izateko hautaketa prozedura atera arte eman daitekeen bestelako egoerarik. Halakoetan kontratazioa kasuan kasuko lanpostura egokituko da.



- 1.3. Lanpostuak urteko 35.189 euroren gainean lan egiten den jardun eta denboraren arabera lansaria izango du.
- 1.4. Hautapen probak gairitu ondoren deialdi honetako lanpostua betetzeko izendatzen den izenaia Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko da; araubide horretan alta emango zaio eta hark aurreikusten duen babesa izango du.
- 1.5. Lanaldia: Amatasun baxa kubritzeko, jardunaren %30a. Gerora egin ahal izango diren ordezkapenetarako baldintzak aldatu ahal izango dituzte organo eskudunek, zerbitzuaren beharrek hala eskatuz gero.

Lanaren ordutegia Partzuergoak du, betiere zerbitzuaren beharretara egokituta.

### **Bigarrena. Eginkizunak.**

Hautatuko pertsonak idazkari-kontuhartzaile lanpostua beteko du. Bere mailarako egokiak diren beste batzuk baztertu gabe, hauek izango dira bere eginkizun nagusiak:

- a) Sarrera eskaerak hartu eta jakinaraztea.
- b) Partzuergo-kideen erregistro-liburua eramatea.
- c) Organoen bileretako aktak jasotzea eta horretarako dagoen liburura pasatzea, Kontseilu Nagusiko Lehendakariaren edo Batzorde Eragileko Lehendakariaren oniritziarekin, bilera zein organorena den kontu.
- d) Ziurtapenak ematea.
- e) Partzuergoaren fondoak bildu eta zaintzea.



- f) Kontabilitatea zuzentzea.
- g) Bazkideen sarrerak oharteman eta horien kontua eramatea.
- h) Ekonomia mailako eragiketa guztiak aurrekontuen aldetik begiratzea, eta lehendakariak ematen dituen ordainketa aginduak betetzea.
- i) Urteko memoria, aurrekontua eta balantzea aurreratzea, Batzorde Eragileari aurkezteko.
- j) Batzorde Eragileari bere berariazko eginkizunetan gomendatzen zaizkion lanak zuzentzea.
- k) Epaitegietan Partzuergoaren ordezkari izan eta defentsa juridikoa egitea, entitate publiko honetako zerbitzu juridikoa den heinean.
- l) Bere kategoriaren arabera agindutako beste lanak.

**Hirugarrena. Hautagai izateko baldintzak.**

Deialdian parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunei jarraituta, beharginen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango dute, modu berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketa gabeak badira; bestalde, bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere bai, baldin eta zuzenbideko banaketa gabeak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.



- b) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretirorako gehienezko adina beteta ez izatea.
- c) Zuzenbidean, Zientzia politikoetan edota Soziologian lizentziatua izatea.
- d) Ibilgailuak gidatzeko B motatako baimena izatea.
- e) EGA, euskarazko C1 edo baliokidea den titulua.
- f) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko lukeen gaixotasunik edota akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- g) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzurik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.
- h) Inolako ezgaitasun edota bateraezintasunezko lege-kausaren batean sartua ez izatea, Herri Administrazioen zerbitzuan diren langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusita dagoenaren arabera.

Baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete behar dira.

### **Laugarrena. Eskabideak.**

Eskabideak oinarri hauen I. eranskinean ageri den ereduari egokituko zaizkio.

Lehiaketa-Oposizio honetan onartuak izateko eskabideek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte, baztertuak ez izateko:



a) Izangaiek adieraziko dute deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak beteta dituztela, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Ez dira onartuko eskabidean frogatzen edo zerrendatzen ez diren merezimenduak.

b) Horrez gain, eskabidearekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

- Nortasun agiri baten fotokopia.
- Curriculum vitae-a.
- Ibilgailuak gidatzeko B motatako baimenaren fotokopia.

- Eskabidean adierazi diren merezimenduak frogatzen dituzten agirien fotokopiak, lehiaketa fasean balora daitezten. Konpultsatu gabeko merezimenduen frogagiriak aurkeztuz gero, originalak azterketan erakutsi beharko dira, epaimahaiak erka ditzan.

- Lan esperientzia frogatzeko: Bizitza laboralaren informea ("*Informe de vida laboral*" delakoa) gutxienez.

c) Eskerak, behar bezala beteta, ondorengo helbidetako batera izango dira bidaliak:

- **Mailez:** [idezkaritza@udalbiltza.eus](mailto:idezkaritza@udalbiltza.eus)
- **Postaz:** Udalbiltza Partzuergoa.

Martin Ugalde Kultur Parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g



20140 Andoain (Gipuzkoa)

Horretarako azken eguna, 2018ko martxoaren 19a izango da. Egun horretarako iritsi ez diren eskaerak ez dira hautaketa frogan parte hartzeko onartuko. Horretaz gain, egun horretatik aurrera ezingo da merezimendu berriren frogagiririk aurkeztu.

Martxoaren 21ean onartutako hautagaien zerrenda jarriko da jendaurrean ikusgai, [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) webgunean.

### **Bosgarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.**

5.1. Ondorengo hauek osatuko dute Epaimahaia:

Mahaiburua: Luis Intxauspe Arozamena, Udalbiltza Partzuergoko Lehendakaria.

Ordezkoa: Alaitz Aizpurua Labaka, Udalbiltza Partzuergoko Lehendakari ordea.

1. mahaikidea: Arantza Ruiz de Larrinaga Olaizola, Udalbiltza Partzuergoko zuzendaria.

Ordezkoa: Ainara Iraeta Usabiaga, Udalbiltza Partzuergoko Udal Harremanen arduraduna.

2. mahaikidea: Jon Arriola Espilla, Udalbiltza Partzuergoko Batzorde Eragileko kidea.

Ordezkoa: Udalbiltza Partzuergoko Batzorde Eragileko kide bat, izendatzeke.

3. mahaikidea: Andoni Gartzia Arruabarrena, Udalbiltza Partzuergoko Batzorde Eragileko kidea.

Ordezkoa: Udalbiltza Partzuergoko Batzorde Eragileko kide bat, izendatzeke.



4. mahaikidea: Eguzkiñe Aiesa Andres, Udalbiltza Partzuergoko idazkaria.

Ordezkoa: Udalbiltza Partzuergoko kide den udal bateko idazkaria, izendatzeke.

5.2. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan arte.

5.3. Epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta hala adierazi beharko diote lehendakariari, eta izangaiek ere atzera bota ahal izango dituzte, indarrean den 40/2015 Legearen 23 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, epaimahaikideak ezetsi ahal izango dira, baldin eta aipatu legearen 24. artikuluan aurreikusitakoa gertatzen bada.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu arau hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak eta aurreikusita ez dauden kasuetan nola jokatu behar den.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituak ekarri ahalko ditu froga guztietarako, edo batzuetarako soilik.

#### **Seigarrena.- Hautaketa prozeduraren nondik norakoak:**

6.1. Hautaketa prozedura hiru fasetan banatuko da: Lehiaketaldia lehenbizi, oposizioaldia bigarrenik eta elkarrizketaldia hirugarrenik, gehienez 100 puntu lortzen ahalko direlarik.

6.2. Lehiaketaldian 30 puntu eskuratzen ahalko dira gehienez, eta ez da baztergarria izango.



6.3. Oposizioaldian 50 puntu eskuratzen ahalko dira gehienez, eta gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak hautaketa prozeduratik kanpo geldituko dira.

6.4. Elkarrizketa fasean 20 puntu lortzen ahalko dira gehienez. Gehienez, aurreko bi faseetan puntuaketarik handiena lortutako 10 hautagaiak izango dute honako fasean parte hartzeko aukera.

6.5. Lan poltsa hiru faseetan parte hartu duten pertsonak osatuko dute, eskuratutako emaitzen hurrenkeran izango da osatua, handienetik txikienera, zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren oinarrietan zehaztutako nondik norakoen arabera.

### **Zazpigarrena. Lehiaketaldia.**

7.1. Atal honetan, 30 puntu lortzen ahalko dira gehienez, eta ez da baztergarria izango. Epaimahaiak laugarren oinarriaren arabera alegaturiko eta frogaturiko merezimenduak baloratuko ditu, honako baremoari jarraikiz:

7.2. Lan esperientzia: Atal honetan 10 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

- a) Administrazio Publiko batean idazkari-kontuhartzaile moduan jardun osoan lan egindako hilabete bakoitzeko, puntu 0,5; gehienez ere, 10 puntu.
- b) Administrazio Publiko batean idazkari moduan jardun osoan lan egindako hilabete bakoitzeko, 0'25 puntu; gehienez ere, 5 puntu.
- c) Administrazio Publiko batean kontuhartzaile moduan jardun osoan lan egindako hilabete bakoitzeko, 0'25 puntu; gehienez ere, 5 puntu.

A, b, eta c merezimenduak frogatzeko, nor bere tokiko administraziooko organo eskudunak emandako egiaztatgiriaren bidez frogatu beharko du.





A azpiatalean deskribatutako merezimendua ez da b eta c azpiataletako merezimenduekin bateragarria izango.

Hilabete osoa osatzen ez duten lan egunen arabeko proportzioa zenbatuko da; era berean, jardunaren ehuneko batean egindako lan egunen proportzioa izango da zenbatuko dena..

7.3. Titulazioak: Gehienez ere, 15 puntu.

- a) Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzan edota Ekonomian lizentziatura edo gradua. 5 puntu.
- b) Lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko jardunaldiak, mintegiak eta masterrak gainditzea. Gehienera 10 puntu emango dira baremo hauen arabera:
  - 40 ordutik 100 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 2 puntu.
  - 101 ordutik 200 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 3 puntu.
  - 201 ordutik 300 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 4 puntu.
  - 300 ordutik gorako ikastaro bakoitzarengatik: 5 puntu.

7.4. Hizkuntzak: Gehienez ere, 5 puntu.

- a) Ipar Euskal Herriko hautagaientzat gaztelera C1 titulua edo Hego Euskal Herriko hautagaientzat frantses tituluaren C1 edo baliokideagatik, 5 puntu.
- b) Ipar Euskal Herriko hautagaientzat gaztelera B2 titulua edo Hego Euskal Herriko hautagaientzat frantses tituluaren B2 edo baliokideagatik, 4 puntu.



c) Ipar Euskal Herriko hautagaien B1 titulua edo Hego Euskal Herriko hautagaien frantses titularen B1 edo baliokideagatik, 3 puntu.

d) Ingeles B2 titulua edo baliokidea izateagatik, 2 puntu.

7.5. Merezimendu bakoitza behin bakarrik izango da puntuagarri.

7.6. Emaitzak 2018ko apirilaren 9an azterketa bitartean Andoaino Martin Ugalde Parkeko 2. gelan eta [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) webgunean jarriko dira ikusgai. Bost eguneko epealdia izango da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahai buruari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

#### **Zortzigarrena.- Oposizioaldia:**

8.1. Atal honetan, 50 puntu lortzen ahalko dira gehienez eta gutxienez 25 puntu lortzen ez duten hautagaiak hautaketa prozeduratik kanpo geldituko dira.

8.2. Deialdi bakarraren bidez egingo da ariketa honetarako deia hautagaiei, behar bezala justifikatu eta Epaimahaiak askatasun osoz aztertutako ezinbesteko arrazoi larriak izan ezik. Ariketa hau, **2018ko apirilaren 9an egingo da, arratsaldeko lauretan hasita (16:00), Andoaino Martin Ugalde Kultur Parkeko 2 gelan.**

8.3. Hautagaiak deialdi honetako II eranskinean agertzen den gaitegiaren inguruko 40 galdera erantzun beharko dituzte, espazio mugatuan edota test moduan. Zuzen erantzundako galdera bakoitzeko 1,25 puntu lortuko da, eta egindako akats bakoitzeko 0'5 kenduko da.

8.4. Froga honen gehienezko iraupena 120 minutukoa izango da (16:00-18:00).



8.5. Idatziko frogaren egunean, hautagaiak ondorengo dokumentazioa ekarriko dute:

- Nortasun agiria eta fotokopia.
- Ibilgailuak gidatzeko B motatako baimena eta fotokopia.
- Hautagaiaren merezimenduak frogatzen dituzten agiriak konpultsatu gabeko fotokopietan aurkeztuz gero, agiri originalak aurkeztu beharko dira froga idatziaren egunean, Epaimahaiak erka ditzan.

8.6. Emaitzak 2018ko apirilaren 11an [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) webgunean jakinaraziko dira. Bost eguneko epealdia izango da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak epaimahai buruari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

### **Bederatziagarrena. Elkarrizketa pertsonala.**

9.1. Ariketa honetan gehienez ere 20 puntu emango dira. Gutxienez 10 puntu eskuratzen ez dituzten hautagaiak hautaketa prozeduratik eta, hortaz, lan poltsatik kanporatuak izango dira.

9.2. Elkarrizketa pertsonalaren bitartez nortasun-ezaugarri orokorrak eta hautagaien kompetentzia profesionalak ebaluatuko dira, lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko hautagaiaren egokitasuna ebaluatze aldera. Elkarrizketaren bitartez ere, hizkuntza gaitasuna neurtuko da (euskara, gaztelera eta frantsesa).

9.3. Fase hau apirilaren 11an hasi eta apirilaren 16an bukatuko da beranduenez.



9.4. Fase honen emaitzak apirilaren 16an [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) webgunean jakinaraziko dira. Bost eguneko epealdia izango da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahai buruari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, erregistro orokorrean, edo epaimahaiko idazkariaren aurrean; azken horrek modu ofizialean erregistratu beharko ditu.

#### **Hamargarrena. Kalifikazioak eta epaimahaiaren proposamena.**

10.1. Behin hautaketa prozedurako hiru atalak eginda, kalifikazio orokorra jendaurrean jarriko da [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) web orrian, lortutako puntuaketaren hurrenkeran. Behin-betiko sailkapen ordena, lehiaketa, idatzizko frogak eta elkarrizketa pertsonala faseetako ariketetan izandako puntuaketen baturak emango du.

10.2. Epaimahaiak puntuazio handiena lortu duen hautagaiaren aldeko izendapen proposamena egingo dio Udaltzaria Partzuergoari. Proposamen hori derrigor betetzekoa izango da Udaltzaria Partzuergoarentzat.

#### **Hamaikagarrena. Gorabeherak eta inpugnazioak.**

11.1. Epaimahaiak ahalmena du aukeraketa prozesua behar bezala joan dadin, Oinarrietan jaso gabeko guztiaz sor daitezkeen zalantza eta gora beherak erabakitze eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

11.2. Interesdunek, deialdi honen, haren oinarrien eta horietatik zein epaimahai kalifikatzailearen jardueratik ondorioztatzen diren administrazio-ekintzen aurka jo ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

#### **Hamabigarrena. Datu pertsonalen babesa.**



**UDALBILTZA**  
**PARTZUERGOA**

Partzuergoan eman edo sortuko diren datu eta erregistro guztiak 15/1999 Lege organikoan eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritako arau eta zuzentarauen babesean egongo dira.

Oiartzunen, 2018ko martxoaren 2an

**LEHENDAKARIAK**



**I.- Eranskina: Eskabide orria**

**I ERANSKINA**

**UDALBILTZA PARTZUERGOA**

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA KONTRATATZEKO HAUTATZE PROZEDURAN  
PARTE HARTZEKO ESKAERA**

**1.- NORTASUN DATUAK:**

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena
NAN	Jaiotze data	telefonoa
Helbide elektronikoa (derrigorrezkoa)	Helbidea	Herria
Herrialdea	Posta Kodea	



**UDALBILTZA**  
**PARTZUERGOA**

**2.- HEZKUNTZA:**

Titulua	Eskola/Unibertsitatea	Data
---------	-----------------------	------

**3.- LAN ESPERIENTZIA:**

SARRERA DATA	IRTEERA DATA	LANTOKIA	IZANDAKO LANPOSTUA



UDALBILTZA  
PARTZUERGOA

**4.- BESTE TITULU EDO IKASKETAK:**

---

Merituen balioespenerako datuak

<b>Tituluak - ikastaroak</b>	<b>Iraupena: orduak</b>

**5.- ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK:**





- Nortasun Agiriaren fotokopia / EHNA.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Ibilgailuak erabiltzeko B baimenaren fotokopia.
- Alegatutako merezimenduen fotokopiak.

Behean sinatzen duenak, eskaera honi dagozkion aukeratze probetan onartu izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta deialdiaren laugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak beteta dituela BAIEZTATZEN DU, eskatutakoan agiri original bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.

Tokia eta data:.....

Sinadura:

**UDALBILTZA PARTZUERGOKO LEHENDAKARIARI**



## **II.- Eranskina: Gaitegia**

- Udalbiltza Partzuergoaren estatutuak.(GAO 2015/3/4)
- Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren estatutuak. (GAO 2002/01/08, GAO 200203/22 eta eta GAO 2015/01/9)
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legea.
- Diru-laguntzen Lege Orokorra, 38/2003, azaroaren 17koa.
- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa (Nafarroa).
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Dirulaguntzei buruzkoa (Araba).
- Maiatzaren 31ko 5/2005 FORU-ARAUA, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen dueña (Bizkaia).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 foru araua.
- Sektore Publikoko kontratuen legearen testu bateratua, 3/2011, azaroaren 14koa.



## UDALBILTZA PARTZUERGOA

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru Araua.
- Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua.
- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa: objektua, aplikazio-eremua, datuen babeserako printzipioak.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.